

Fermin Etxegoienek (Oñati, 1996) kutuntzat dituen hainbat gai aztertu ditu, atzo aurkeztu zuen eleberrian: euskara, espainiartasun kulturala, Ruper Ordorika edo mikro-geografiak.

«Totelak»-ek (Erein) fikzioa eta saiakera uztartzen ditu eta euskara eta euskaldunei buruzko hausnarketa egiten du, hainbat herrialdetan kokatutako istorio baten bitartez.

mugatzaileak eta fikziozko pertsonaien jarrera kontrajarriak haien aurrean».

Izan ere, euskara eta bere erabilari buruzko eztabaidak garrantzi handia du eleberrian. «Euskalduna da... bere aukera linguistikoen ginetik bizitzen saiatzen dena. Gure inkontziente kolektibo linguistikoa oso eralduna da eta erdaraz edozein erregistro onartzen dugu, euskaraz ez bezala, non ia edozerk kanporatzen gaituen narraziozik», dio Etxegoienek sinopsian.

Bertan, idazleak kutuntzat dituen hainbat gai aztertu ditu larritasuneraino: euskara, espainiartasun kulturala, Ruper Ordorika, mikro-geografiak. «Ruperzale» guztientzat liburu «ezinbestekoa» dela nabarmendu zuen Mujikak, baina beste musikari batzuk ere ageri dira.

Fermin Etxegoien

Fermin Etxegoien Uribeetxeberria (Oñati, 1966) kazetaria eta idazlea da. 2004an argitaratu zuen bere lehen liburua Pamiela argitaletxearekin, "Neurona eta Zeurona" saiakera. Bost urte geroago "Autokarabana" (2004, Pamiela) eleberriarekin ekin zion narratibari. Euskadi Literatura saria eta Kritika saria jaso zituen. Beste bi eleberri ditu argitaratuak orain arte: "Zinegotzia" (2013, Erein) eta "Urpekariak" (2015, Erein). Bestalde, 2014an "Eutsiko diogu?" elkarrizketa-liburua argitaratu zuen.

Kazetari lanean ere badihardu. Zuzendu dituen azken dokumentalak 2020ko "Eusten" (COVID-19aren izurriteaz) eta 2019ko "Egunak eta Lanak" dira (Euskaltzaindiaren mendeurrenaz). Telebistako hainbat saiotan ere egin du lan: "Autentikoa", "Ur Handitan", "Anitzele", "Kalaka", "Lau Haizeetara", "Doctor Livingston", "Katu-Kale"...

Euskarari buruzko hausnarketa dakar Etxegoienek «Totelak»-en

Asier ROBLES | DONOSTIA

ELEBERRI HIBRIDOA

Fermin Etxegoien Uribeetxeberria "Totelak" (2021, Erein) eleberri hibridoa aurkeztu zuen atzo, Donostiako Udal Liburutegian. Ezohiko bidaia liburua da "Totelak", espazioan ez ezik, denboran ere bestelako bideak hartu baititu egileak.

Hasteko, Inazio Mujikak, Erein argitaletxeko editoreak, azaldu zituen idazle eta kazetari oñatiarraren azken obraren nondik norakoak. Eleberri «hibridoa» dela nabarmendu zuen, fikzioa, saiakera eta kazetaritza uztartzen dituena, «euskal literaturan ohikoa den auto-pertzepzio ariketaren generoa (nor-gara-gu-zer-gara-gu) ezohiko eremuetara eramateko».


Istoria St. Moritzen (Suitzako ekialdean) Maserati gorri batean bidaiatzen ari den bikote batekin hasten da. Emakumeak bularreko minbizia itxuraz gairatu duela ospatu nahi dute eta Thomas Mann-ek "Mendi Magikoa" eleberrian ezagutzera eman zuen ospitalea ere bisitatu nahi dute. Burutazio bikaina etorriko zaie bidaiari, euskalgintzari onura ekonomiko handia ekar liezaiokeena.

«Eleberri hibridoa da, fikzioa, saiakera eta kazetaritza uztartzen dituena, euskal literaturan ohikoa den auto-pertzepzio ariketaren generoa (nor-gara-gu-zer-gara-gu) ezohiko eremuetara eramateko».

Bestetik, Santanderren kalean jotzen ari den musikari frustratu baten bueltan hausnarketa egiten du Etxegoienek bere liburuan. «Ezustean, harreman estua izan beharko du euskal musikari famatu batekin eta bizitza aldatuko zaio», azaldu zuen aurkezpenean.

Euskara

Mujikak azpimarratu zuenez, hau da "Totelak"-en gatazka guzti nagusia: «Euskal kultura garaikidean ageri diren errealitate



Fermin Etxegoienek «Totelak» eleberria aurkeztu du. Maialen ANDRES | FOKU

hamaika
AKTUALITATEA · EUSKAL HERRIA ZUZENEAN · KULTURA DIGITALA · BIZIMUSIKA

ZUZENEAN / NAHIERAN

